



OSOKO BILKURA
2019/06/15
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

NIK, IÑAKI GALDOS LANDAK,
ELGOIBARKO UDALEKO BEHIN-
BEHINEKO IDAZKARI NAIZENEZ,
honako hau

DON IÑAKI GALDOS LANDA,
SECRETARIO ACCTAL., DEL ILUSTRE
AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR.

HONAKO HAU ZIURTATZEN DUT:

CERTIFICO:

Bi mila eta hemeretziko ekainaren hamabostean, Udalbatzarraren Osoko Bilkurak egin zuen bilerako aktaren zimborroa honako hau dela:

Que el borrador del acta de la sesión celebrada por el Pleno Municipal el día quince de junio de dos mil diecinueve, es del tenor literal siguiente:

Elgoibarren eta bertako Udaletxean, bi mila eta hemeretziko ekainaren hamabostean, goizeko hamabietan, lehenengo deialdian, Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. artikulua eta Tokiko Erakundeen Antolakuntzari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 37. artikulua agintzen duena betetzeko, eta Udala osatzeko bilkura egiteko, joan zen maiatzaren hogeita seian egindako udal hauteskundeetan hautatu zituzten zinegotziak, hau da, ondoren zehaztuko direnak bildu dira:

En la Villa de Elgoibar y su Casa Consistorial siendo las doce horas del día quince de junio de dos mil diecinueve, en primera convocatoria, en cumplimiento de lo establecido en el artículo 195 de la Ley Orgánica Electoral General 5/1985, de 19 de junio y el artículo 37 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las entidades Locales y a los efectos de celebrar sesión constitutiva del Ayuntamiento, se reúnen los Concejales electos que han resultado proclamados en las elecciones municipales celebradas el día veintiséis del pasado mes de mayo, y que a continuación se citan:

TALDE POLITIKOA: EAJ/PNV

GRUPO POLÍTICO: EAJ/ PNV

- Ane Beitia Arriola andrea.
- Iosu Arraiz Aramburu jauna.
- Andrea Arriola Ferrer andrea.
- Atsegine Uzuriaga Mendizabal andrea.
- Iñigo Loyola Garate jauna.
- Maialen Gurrutxaga Uranga andrea.
- Blanca Larrañaga Iriondo andrea.
- Gorka Garaizabal Aguirregomezcorta jauna.

- Doña Ane Beitia Arriola.
- D. Iosu Arraiz Aramburu.
- Doña Andrea Arriola Ferrer.
- Doña Atsegine Uzuriaga Mendizabal.
- Don Iñigo Loyola Garate.
- Doña Maialen Gurrutxaga Uranga.
- Doña Blanca Larrañaga Iriondo.
- Don Gorka Garaizabal Aguirregomezcorta.



OSOKO BILKURA
2019/06/15
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

TALDE POLITIKOA: EH BILDU.

- Jon Peli Uriguen Ansola jauna.
- Itxaso Egaña Iriondo andrea
- Joseba Osoro Iturbe jauna
- Eneritz Azkue Basurko andrea
- Jorge Hernando Gaona jauna
- Aitziber Aramberrri Uranga andrea
- Jon Joseba Etxabe Jauregi jauna

TALDE POLITIKOA: PSE-EE

- Fernando Suarez Varela jauna

TALDE POLITIKOA: ELKARREKIN PODEMOS:

- Evaristo Rodriguez Rabano jauna

Behin-behineko idazkari den Iñaki Galdos Landa jauna bilerara bertaratu da, eta bileraren fede eman du.

Idazkari jaunak aditzera eman du Hauteskunde Orokorretarako Araubideari buruzko Lege Organikoaren 195. eta 196. artikuluetan, eta Toki Erakundeen Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege Araubideari buruzko 37. eta 40. ataletan jasotakoaren arabera, Udal berria osatzea dela bilkura honen helburua. Bilkura honetan honako aztergai hauek aztertuko dira.

- 1.- Korporazioa osatzea.
- 2.- Alkatea aukeratzea.

LEHENENGOA.- KORPORAZIOA OSATZEA.-

GRUPO POLÍTICO: EH BILDU.

- Don Jon Peli Uriguen Ansola
- Doña Itxaso Egaña Iriondo andrea
- Don Joseba Osoro Iturbe
- Doña Eneritz Azkue Basurko
- Don Jorge Hernando Gaona
- Doña Aitziber Aramberrri Uranga
- Don Jon Joseba Etxabe Jauregi

GRUPO POLÍTICO: PSE-EE

- Don Fernando Suárez Varela

GRUPO POLÍTICO: ELKARREKIN PODEMOS:

- Don Evaristo Rodriguez Rábano.

Asiste y da fe del acto el Secretario acctal. Don Iñaki Galdos Landa.

Por parte del Sr. Secretario se da cuenta de que el objeto de esta Sesión, es la constitución del nuevo Ayuntamiento, en cumplimiento de lo estipulado por los artículos 195 y 196 de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General, y los artículos 37 y 40 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, conforme al siguiente orden del día:

- 1º.- Constitución de la Corporación.
- 2º.- Elección del Alcalde.

PRIMERO.- CONSTITUCIÓN DE LA CORPORACIÓN.-



OSOKO BILKURA
2019/06/15
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Hauteskunde Orokorretarako Araubideari buruzko Lege Organikoaren 195.2. atalean ezarritakoaren arabera, bertaratutako hautetsi zaharrenak eta gazteenak Adineko Mahaia osatuko dute; idazkaria, berriz, udalekoa izango da.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 195.2 de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General se procede a constituir una Mesa de Edad integrada por los elegidos de mayor y menor edad presentes en el acto, actuando como Secretario el que lo sea de la Corporación.

Bertaratutakoen datuak egiaztatu ondoren, Adineko Mahaia osatu da, eta mahai horretako partaideak honako hauek izango dira: FERNANDO SUAREZ VARELA jauna, hautetsirik zaharrena –honek egingo ditu lehendakari lanak- eta MAIALEN GURRUTXAGA URANGA andrea, hautetsirik gazteena.

Comprobados los datos de los asistentes, la Mesa de Edad queda integrada por D. FERNANDO SUAREZ VARELA, quien, por ser el elegido de mayor edad, presidirá la Mesa, y por D^a. MAIALEN GURRUTXAGA URANGA, que es la elegida de menor edad.

Bilkura honetako idazkaria, Iñaki Galdos Landa, alegia, Bilkura honetan ere idazkari izango da.

Actúa como Secretario D. Iñaki Galdos Landa que es también el actuante de esta sesión.

Adineko Mahaia osaturik, eta Tokiko Erakundeen Antolakuntzari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 36.2. artikulua xedatutakoaren arabera, aditzera ematen da Zinegotzi Hautetsien esku jarri dela Korporazioak Udalaren Kutxan eta Bankuko Erakundeetan dirutan eta balio propioetan gordailututa dituen izakinen egiaztagiriei buruzko dokumentazioa.

Constituida la Mesa de Edad y habiéndose tomado las medidas precisas según dispone el artículo 36.2 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, se da cuenta de que se han puesto a disposición de los Concejales Electos la documentación referente a los justificantes de las existencias en metálico y valores propios de la Corporación depositados en la Caja Municipal y Entidades Bancarias.

Ondoren Idazkari jaunak, Udalak osatzeko ezarri behar diren xedapenak irakurriko ditu, besteak beste, Hauteskunde Orokorretarako Araubideari buruzko Lege Organikoaren 195. atalean jasotakoak.

Acto seguido, el Sr Secretario da lectura a las disposiciones aplicables a la Constitución de los Ayuntamientos, entre ellas las contenidas en el artículo 195 de la citada ley Orgánica del Régimen Electoral General.

Atal horretan jasotakoaren arabera, "Mahaiak hautetsiek aurkeztutako kredentzialak egiaztatuko ditu, edo Bailerako Hauteskunde batzordeak, hautetsiak identifikatu ahal izateko, Udalarri bidali dizkion egiaztagiriak".

Dicho artículo dispone que "la Mesa comprueba las credenciales presentadas o acreditaciones de la personalidad de los electos con base a las certificaciones que al Ayuntamiento hubiera remitido la Junta Electoral de Zona".



OSOKO BILKURA
2019/06/15
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

“Aurrekoa egin ondoren, Mahaiak osatutzat emango du Korporazioa, baldin eta hautatutako zinegotzien gehiengo absolutua bertan badago. Hori horrela izan ezean, bi egun barne, berriz ere, bilera egingo da, eta, bertaratutako zinegotzi kopurua edozein delarik ere, Korporazioa osatu egingo da”.

Ondorioz, hautetsiek aurkeztutako kredentzialak egiaztatuko dira.

Ondoren, egiaztatuko da Zinegotzi hautetsi guztiek egin dituztela Tokiko Araubidearen Oinariak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.7. artikuluan aipatzen diren aitortpenak.

Horiek horrela, 2016ko maiatzaren 26an egin ziren udal hauteskundearen ostean, Bergara Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak Hautetsiak Aldarrikatzeko bidali duen Aktan xedatutakoaren arabera, honako kide hauek osatuko dute Korporazioa:

EAJren aldetik:

- Ane Beitia Arriola andrea.
- Iosu Arraiz Aramburu jauna.
- Andrea Arriola Ferrer andrea.
- Atsegine Uzuriaga Mendizabal andrea.
- Iñigo Loyola Garate jauna.
- Maialen Gurrutxaga Uranga andrea.
- Blanca Larrañaga Iriondo andrea.
- Gorka Garaizabal Aguirregomezcorta jauna.

“Realizada la operación anterior, la Mesa declarará constituida la Corporación si concurren la mayoría absoluta de los Concejales electos. En caso contrario se celebrará sesión dos días después, quedando constituida la Corporación cualquiera que fuere el número de concejales presentes”.

En consecuencia, se pasa a la comprobación de las credenciales presentadas por los electos.

A continuación, se comprueba que todos los Concejales electos han formulado las declaraciones referidas en el artículo 75.7 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

De conformidad con lo dispuesto en el Acta de Proclamación de Electos remitida por la Junta Electoral de Zona de Bergara tras las elecciones municipales celebradas el 26 de mayo de 2019, esta Corporación estará formada por los siguientes miembros:

Por parte del PNV:

- Doña Ane Beitia Arriola.
- D. Iosu Arraiz Aramburu.
- Doña Andrea Arriola Ferrer.
- Doña Atsegine Uzuriaga Mendizabal.
- Don Iñigo Loyola Garate.
- Doña Maialen Gurrutxaga Uranga.
- Doña Blanca Larrañaga Iriondo.
- Don Gorka Garaizabal Aguirregomezcorta.



OSOKO BILKURA
2019/06/15
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

EH BILDUren aldetik:

- Jon Peli Uriguen Ansola jauna.
- Itxaso Egaña Iriondo andrea
- Joseba Osoro Iturbe jauna
- Eneritz Azkue Basurko andrea
- Jorge Hernando Gaona jauna
- Aitziber Aramberrri Uranga andrea
- Jon Joseba Etxabe Jauregi jauna

PSE-EEren aldetik:

- Fernando Suarez Varela jauna

ELKARREKIN PODEMOSen aldetik:

- Evaristo Rodriguez Rabano jauna

Hortaz, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195.4 artikuluan eta Tokiko Erakundeen Antolakuntzari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 37.4. artikuluan eskatutakoa betetzen denez, eta Bilkura honetara Zinegotzi Hautetsien gehiengo absolutua bertaratu denez, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Legearen 108.8. artikuluan aurreikusitako lege baldintza betetzeko, zin egin edo hitza emango da.

Udalbatzarra behar bezala osatzeko, Zinegotziek haien karguen jabe egin behar dute.

Horiek horrela, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 108.8 artikuluan xedatutakoaren arabera, Elgoibarko Udalaren Zinegotzi karguak hartu eta, bidenabar, benetan Zinegotzi

Por parte de EH BILDU:

- Don Jon Peli Uriguen Ansola
- Doña Itxaso Egaña Iriondo andrea
- Don Joseba Osoro Iturbe
- Doña Eneritz Azkue Basurko
- Don Jorge Hernando Gaona
- Doña Aitziber Aramberrri Uranga
- Don Jon Joseba Etxabe Jauregi

Por parte del PSE-EE:

- Don Fernando Suárez Varela

Por parte de ELKARREKIN PODEMOS:

- Don Evaristo Rodríguez Rábano.

Habida cuenta de que se cumple la exigencia del artículo 195.4 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General y 37.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, y que concurren a esta Sesión la mayoría absoluta de Concejales Electos, se procede al cumplimiento del requisito legal previsto en el artículo 108.8 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General de prestar juramento o promesa.

Para la debida constitución de la corporación, se debe proceder a la toma de posesión de los cargos de Concejales.

A tal efecto, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 108.8 de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General, a fin de tomar posesión de sus cargos y así adquirir la plena condición de Concejales del



OSOKO BILKURA
2019/06/15
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

izaera eskuratu ahal izateko bertaratu diren hautetsiek Zinegotzi karguak onartu beharko dituzte, Eskualdeko Hauteskunde Batzordearen Aldarrikatze-Aktan ageri den hurrenkerari jarraiki. Hala, hitza eman edo zin egin beharko dute, apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuan ezarritakoa betetzeko.

Horretarako, Gurrutxaga andreak, zinegotzi hautetsi guztiei banaka, eta Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak emandako Egiatagiarian ageri den hurrenkeran, honako galdera hau egin die, karguaren jabe egin ahal izan daitezen.

Zuen kontzientziagatik eta ohoreagatik zin egiten duzue edo hitzematen duzue Elgoibarko Udalaren zinegotzi karguak dituen betebeharrak Erregearekiko leialtasunez beteko dituzuela, eta Konstituzioa, Estatuaren oinarritzko araua dena, bete eta betearaziko duzuela?

Bertaratutako 17 zinegotzi hautetsiek baietz erantzun dute, eta Hauteskunde-Araubide Orokorari buruzko Lege Organikoaren 108. artikuluan ezarritakoari jarraiki, zin egin dute edo hitzeman dute 707/1979 Errege Dekretuan ezarritakoa beteko dutela. Hori dela-eta, guztiei Zinegotzi kargua eman zaie.

Dagokien egiatapenak egin ondoren, zinegotzi kargua onartu denez, eta batzar honetara hautatutako Zinegotzi guztiak bertaratu direnez, eta ondorioz, gehiengo absolutua dagoenez, Gurrutxaga andreak eratzat ematen du Elgoibarko Udaltzarra.

BIGARRENA.- ALKATEA AUKERATZEA.-

Ayuntamiento de Elgoibar, las personas electas aquí presentes, y por el orden en que figure en la Certificación del acta de proclamación de la Junta Electoral de Zona, deberán aceptar el cargo de Concejal o Concejala, prestando la promesa o el juramento que dé cumplimiento al Real Decreto 707/1979, de 5 de abril.

A tal efecto, por parte de la Sra Gurrutxaga, se procede a formular individualmente a todos los Concejales electos, y por el orden en que figuran en la Certificación de la Junta Electoral de Zona, la siguiente pregunta para tomar posesión del cargo:

¿Juráis o prometéis por vuestra conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de Concejal del Ayuntamiento de Elgoibar con lealtad al Rey, y guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del Estado?

Como quiera que los 17 electos presentes responden afirmativamente, prestando el juramento o promesa de conformidad con el artículo 108 de la Ley Orgánica de Régimen Electoral General dando cumplimiento a lo dispuesto en el R.D 707/1979, se procede a darles posesión del cargo de Concejal del Ayuntamiento de Elgoibar.

Una vez efectuadas las debidas comprobaciones, habiendo aceptado el cargo de Concejal y habida cuenta que concurren a esta sesión la totalidad de las y los Concejales que resultaron elegidos y por tanto la mayoría absoluta, la Sra. Gurrutxaga da por constituida la corporación municipal de Elgoibar.

SEGUNDO.- ELECCION DE ALCALDE/SA.-



OSOKO BILKURA
2019/06/15
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Korporazioa osatu ondoren, eta Hauteskunde Orokorretarako Araubideari buruzko Lege Organikoaren 196. atalak dioenaren arabera, Korporazioa osatzen den bilkura berean aukeratu behar da alkatea. Alkatea aukeratzeko honako prozedura hau jarraitu behar da:

a) Zerrendaburu diren zinegotzi guztiak izan daitezke alkategai.

b) Hauetako norbaitek, zinegotziek emandako botoen gehiengo absolutua lortzen badu, alkate kargua eskuratuko du. Horretarako, 9 boto behar dira gutxienez.

c) Inork ez badu gehiengo absoluturik lortzen, dagokion udalean boto gehien izan duen alderdiko zerrendaburua izango da alkate.

Bailarako Hauteskunde batzordearen aldamrikapen-aktan jasotakoaren arabera, honako hautetsi hauek dira zerrendagai eta, aldi berean, alkategai.

Ane Beitia Arriola andrea, EAJ/PNVko zerrendaburua.

Jon Peli Uriguen Ansola jauna, EH BILDUko zerrendaburua.

Fernando Suárez Varela jauna, PSE-EEeko zerrendaburua.

Evaristo Rodriguez Rabano jauna, ELKARREKIN PODEMOSeko zerrendaburua.

Une honetan, hala nahi duenak, Alkateztarako aurkeztu duen hautagaitza erretiratu ahal izango du. Horretaz gain, egoki irizitako azalpenak eta adierazpenak egin ahal izango ditu.

Una vez constituida la Corporación, y según dispone el artículo 196 de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General, en la misma sesión de Constitución de la Corporación, se procede a la elección del Alcalde/sa, de acuerdo con el siguiente procedimiento:

a) Pueden ser candidatos todos los Concejales que encabecen sus correspondientes listas.

b) Si alguno de ellos obtiene la mayoría absoluta de los votos de los Concejales es proclamado electo. Para ello se precisa un mínimo de 9 votos.

c) Si ninguno de ellos obtiene dicha mayoría es proclamado Alcalde el Concejales que encabece la lista que haya obtenido mayor número de votos populares en el correspondiente municipio.

En base a lo indicado en el acta de proclamación de la Junta Electoral de Zona, son cabeza de lista, y por tanto candidatos a Alcalde/sa, los siguientes Concejales Electos:

D^a. Ane Beitia Arriola, cabeza de lista de EAJ/PNV.

D. Jon Peli Uriguen Ansola, cabeza de lista de EH BILDU.

D. Fernando Suárez Varela, cabeza de lista del PSE-EE.

D. Evaristo Rodríguez Rábano, cabeza de lista de ELKARREKIN PODEMOS.

Este es el momento para que quien lo desee, pueda retirar su candidatura a la Alcaldía, así como para que se proceda a dar explicaciones y manifestar lo que estimen oportuno.



OSOKO BILKURA
2019/06/15
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

EH Bilduko hautagaia den Uriguen jaunak hitza hartzen du ta honela dio:

Lehenik eta behin, mila esker gaur pleno areto honetara etorri zareten guztioi. Pozgarria da benetan gaur pleno areto honek daukan itxura. Espero dut gure lanaren bidez urteko plenoetan ere jendea etortzera animatzea, bere ekarpenak egiteko eta gure jardunean eragiteko.

Gaur, datozen lau urteei begirako bide berri bat hasten du Udal honek. Eskerrak eman nahi dizkiegu lehenik, gure aldeko hautua egin eta babesa eman diguten 2.065 herritarrei. Ahaleginduko gara zuen botoen bidez helarazi diguzuen mandatu hau betetzen eta, erantzukizun politikoagatik, alkatetzara aurkeztea erabaki dugu. Bigarren indar bozkatuena izan garen neumian, jarrera eraikitzailea eta irekia dugu.

Baita, beste aukera batzuk hautatu dituzten herritarrei ere eskerrak ematen dizkiegu, bere borondatea azaltzeagatik eta hauteskunde hauetan parte hartzeagatik.

Izan ere, Udala ez da alderdi baten ordezkaria. Udala izan behar da Elgoibartar guztien ordezkaria. Herritar guztiona izatea nahi dugu, herritarren eta eragileen parte hartzea sustatuko duten neumiak abian jarrita. Herritarrekin harreman zuzena eduki nahi dugu, eta hori izango de gure lau urtetako eronka nagusia, udal politiketan zuzenean inplika daitezen.

Gure lehentasuna da herritar guztien ongizatea. EH Bilduren ustetan, ongizatea izan behar da erakunde guztietako politiken

El candidato del EH Bildu sr. Uriguen toma la palabra y dice lo siguiente:

En primer lugar, muchas gracias a todas las personas que el día de hoy habéis venido a este salón de plenos. Es motivo de alegría ver el aspecto que tiene hoy este salón de pleno. Espero también que, con nuestro trabajo, la gente asista a los plenos que se vayan celebrando a lo largo del año, para poder realizar sus aportaciones e incidir en nuestro trabajo.

Este Ayuntamiento inicia hoy un nuevo camino para los próximos cuatro años. En primer lugar, queremos dar las gracias a las 2.065 ciudadanas y ciudadanos que nos han apoyado con su voto. Nos esforzaremos en cumplir el mandato que nos habéis dado. Por ello, y por responsabilidad política hemos decidido presentarnos a la alcaldía. En la medida en la que hemos sido la segunda fuerza más votada, tenemos una actitud constructiva y abierta.

También queremos dar las gracias a las ciudadanas y ciudadanos que han elegido otras opciones, por mostrar su voluntad y participar en estas elecciones.

El Ayuntamiento no es la delegación de un partido político. El Ayuntamiento debe representar a toda la ciudadanía de Elgoibar. Queremos que sea de todos y todas, poniendo en marcha medidas para promocionar la participación de la ciudadanía y los agentes locales. Queremos una relación directa con la ciudadanía, y ese va a ser nuestro reto principal en los próximos cuatro años, es decir, que se impliquen directamente en las políticas municipales.

Nuestra prioridad es el bienestar de toda la ciudadanía. En opinión de EH Bildu, ese bienestar debe ser el eje de las políticas



OSOKO BILKURA
2019/06/15
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

ardatza. Gure jarduna elgoibartarren baldintzak hobetzera zuzenduko da, bereziki, gizartetik kanpo gelditzeko arriskuan dauden pertsonena, zerbitzuak hobetuz, gizarte desberdintasunak saihestuz eta bizitza duina izateko eskubidea bermatuz.

Heritar guztiak kontuan hartuta lan egin nahi dugu, nola ez, arrazoi politikoengatik urrun edo espetxean daudenak ere aintzat hartuta. Guk HERRIAN eta Euskal Herri osoan, demokrazian sakontzeko ahalegina egingo dugu eskubide zibil eta politiko guztiak berma daitezzen.

Hemendik, besarkada handi bat bidali nahi diogu Sebas Etxaniz ere bai, ea laster kalean ikusten dugun, eta baita ere Kataluniako gure adiskideei. Agirre lehendakariak zioen bezala Gu beti Kataluinarekin!

-Euskal Herria Bilduk udala heritarrei gerturatu nahi die. Kanpañan esan dugun bezala, denon artean Elgoibar atseginagoa egin nahi dugu.

Kanpaina azaldu duenez, EH Bildu kezkatuta dago elgoibartarren premiekin. Auzoz auzo izeneko kanpaina abian jarri dugu elgoibartarren informazioa, kexak eta proposamenak jasotzeko. Eta dinamika horrekin jarraituko dugu, uste baitugu udala heritarrei bizkarra bizi izan dela; eta horixe da aldatu nahi duguna.

Parte hartzea benetakoa izan behar da, ez marketing hutsa. Horretarako baliabideak jartzen ahaleginduko gara.

Beraz, gure konpromisoa berresten dugu, une honetatik bertatik, hasitako bidearekin

públicas de todas las instituciones. Nuestra actividad irá dirigida a mejorar las condiciones de los elgoibarreses y de las elgoibarresas, sobre todo las personas que están en riesgo de quedarse al margen de la sociedad, para mejorar los servicios, para evitar desigualdades sociales y para garantizar el derecho a una vida digna.

Queremos trabajar teniendo en cuenta a toda la ciudadanía, y cómo no, teniendo en mente a quienes se encuentran lejos o encarcelados por motivos políticos. En nuestro PUEBLO y también en Euskal Herria, nos esforzaremos en profundizar en la democracia, con el fin de garantizar todos los derechos civiles y políticos.

Desde aquí quiero enviar un gran abrazo a Sebas Etxaniz, para ver si nos encontramos pronto en la calle, y también a nuestras amigas y amigos de Cataluña. Tal y como decía el lehendakari Agirre: nosotros siempre con Cataluña.

Euskal Herria Bildu desea acercar el Ayuntamiento a la ciudadanía. Tal y como dijimos en campaña, queremos hacer una Elgoibar más agradable entre todas y todos.

EH Bildu ha mostrado en la campaña que está preocupada por las necesidades de las y los elgoibartarras. Hemos puesto en marcha la campaña Auzoz auzo, para recabar información y las quejas y propuestas de las y los elgoibartarras. Y continuaremos con esa dinámica porque creemos que el ayuntamiento ha vivido de espaldas a la ciudadanía y eso es lo que queremos revertir.

La participación debe ser real, no un puro marketing. Nos esforzaremos en poner medios para ello.

Por tanto, nos reafirmamos en nuestro compromiso desde hoy mismo para



OSOKO BILKURA
2019/06/15
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

jarraitzeko, Alkatetzatik edo oposiziotik, Elgoibar erakargariagoa eta atseginagoa egiteko.

Amaitzeko, lanerako konpromisoa, hautestontzietan lortutako emaitzak egiaz emankorak izateko, elkarlanean aritzeko prestutasuna agertzen dizuegu udalbatza honetako hautetsiei eta herritar guztioi.

Horregatik aurkezten dugu gure hautagaitza Elgoibarko alkate izateko.

EAlko hautagaia den Beitia andreak hitza hartzen du eta honela dio:

Egun on eta ongi etorri bertaratu zareten guztioi. Egia esanda, pleno areto hau ez dugu horrela ikusten, honelako egunetan ezik. Ea aurrerantzean horrela berriro ikusten dugun.

Nire hautagaitza aurkezten dut, eta gure helburua, beti ere, betiko leloa baldin bada ere, guk beti esan izan dugu, eta orain dela lau urte esan nuen moduan, eta beti esan dudana moduan, elgoibartarrak izango dira gure helburu, eta elgoibartarrak izango dira gure oinarria.

Horregatik, orain dela lau urte, galdera bati erantzuna eman nahian, esaten genuen, zer nahi dugu guk Elgoibarren hemendik lau urtera, guri tokatzen zaizkigun lau urte horietan.

Eta berriz ere, galdera berari erantzuna eman nahi diogu, eta ildo horretatik jarraituko dugu.

Guk nahi dugu Elgoibar euskalduna eta dinamikoa, aberastasun ekonomikoa eta enplegua sortzen jarraituko duena, prestakuntza eskaintzaintzaren bitartez gure herritarren kualifikazioa bultzatuko duena,

continuar por el camino que hemos iniciado, y para que desde la Alcaldía o la oposición hagamos una Elgoibar más agradable y atractiva.

Para finalizar, con un compromiso de trabajo, y con el fin de que los resultados obtenidos en las urnas sean fructíferos, nos mostramos dispuestos a colaborar con todas y todos los electos de esta corporación y también con la ciudadanía.

Por ello, presentamos nuestra candidatura a la alcaldía de Elgoibar.

La candidata del PNV Sra. Beitia toma la palabra, y expone lo siguiente:

Buenos días, mi bienvenida a quienes os habéis acercado hoy a este acto. A decir verdad, este salón de pleno lo vemos así solo en estos días. A ver si en adelante, lo seguimos viendo de este modo.

Voy a presentar mi candidatura. Como siempre, nuestro objetivo, pesar de que sea un tema recurrente, tal y como lo decimos siempre, y como lo dijimos hace cuatro años, y como yo lo he dicho siempre, son las y los elgoibarreses, porque son nuestro objetivo y nuestra base.

Por ello, hace cuatro años, queriendo responder a una pregunta, dijimos qué es lo que queremos que sea Elgoibar dentro de cuatro años, es decir, en estos cuatro años que nos han tocado.

Y de nuevo queremos responder a la misma pregunta, y queremos decir seguiremos en la misma línea.

Nosotros queremos una Elgoibar euskaldun y dinámica, que continúe generando riqueza económica y empleo, que impulse la cualificación de la ciudadanía mediante la oferta formativa, que garantice



OSOKO BILKURA
2019/06/15
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

aukera berdintasuna oinarritzat hartuta, pertsona guztien partaidetza eta ekintzailtza bermatuko dituen, bakearen bizikidetzaren eta berradiskidetzaren kultura bultzatuko duena, natur ingurunea eta ingurumena zainduko duena, eta hirigintzaren ikuspegitikan, herri irigarria, eroso eta atsegina iraunkorra izango dena bultzatuko dituen.

la participación y el emprendimiento de todas las personas tomando como punto de partida la igualdad de oportunidades, que fomente la cultura de la paz, la convivencia y la reconciliación, que cuide el entorno natural y el medio ambiente, que haga un esfuerzo para convertirse en un pueblo accesible, cómodo y agradable.

Horiek hartu ditugu ildo nagusizat, eta horiek jarraituko ditugu ildo nagusizat hartzen, gure elgoibartarrak direlako gure helburua.

Esas son las que debemos considerar nuestras líneas fundamentales, y las que seguirán siéndolo, porque nuestro objetivo son las y los elgoibarreses,

Eta datozen beste lau urte hauetan ere, gure gogo eta jarduera guztiak gidatuko dituen galderak, izango dira.

Y en los siguientes cuatro años esas serán las preguntas que guiarán todos nuestros deseos y actuaciones.

Eta funtsezko eta oinarritzko printzipioak, talde honen kudeaketa gidatuko dituen oinariak izango dira. Izango dira gardentasuna, gertutasuna, solidaritatea, zintzotasuna, partehartzea, eta zorroztasuna, batez ere.

Y los principios fundamentales y básicos, que serán los que guiarán la gestión de este grupo serán los siguientes: transparencia, proximidad, solidaridad, sinceridad, participación, y sobre todo, rigurosidad.

Eta honekin guztionekin esan nahi dut ez dela halabeharra gu 40 urtez gobermatzen aritzea, aitzitik, arrazoiren bat ere izango dela horretarako.

Y quiero decir con todo esto, que no es casualidad que llevemos 40 años gobernando, sino que alguna causalidad también habrá en eso.

ELKARREKIN Podemoseko hautagaia den Rodriguez jaunak hitza hartzen du eta honela dio:

Acto seguido, toma la palabra el candidato de Elkarrekin Podemos, Sr. Rodriguez para decir lo siguiente:

Eskerrak ematen dizkizuet guztioi entzuten ditudan hitz politengatik.

Doy las gracias a todos por las buenas palabras que estoy escuchando.

Orain, gauza bat bakarrik esan nahi dizuet: guk lan egingo dugu, beti, jendeari laguntzeko helburua duten pertsonen alde edo pertsonen laguntzeko egiten diren ekintzen alde.

Desde aquí, lo único que quiero decir es que nosotros vamos a trabajar exclusivamente en apoyar a aquellas personas y a aquellos actos que estén siempre ayudando a la gente.

Ez daukagu beste helbururik. Hortaz, gure eskua beti egongo da horretarako prest, jendeari ondo datorkion guztia bultzatzeko,

No aspiramos a nada más. Entonces, nuestra mano siempre estará dispuesta para eso, para apoyar todo lo que venga



OSOKO BILKURA
2019/06/15
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

oraindik ere, hor dauden arazoak konpontzeko.

bien a la gente, para solucionar esos problemas que hasta ahora siguen estando ahí.

Berrogei urte, ba bai, baina arazoek hortxe jarraitzen dute.

Cuarenta años, pues sí, pero los problemas siguen estando ahí.

Hori da guztiok konpondu nahi duguna, eta horretan laguntzeko eskua luzatzen duenari lagunduko diogu guk ere. Eskerrik asko

Eso es lo que queremos nosotros solucionar, y ayudaremos a quien ponga también la mano a ello. Gracias.

Ondorioz, Alkatea aukeratu da, eta horretarako, isilpeko bozketa egin da. Zinegotziek propio prestatutako boto-txartelak erabili dituzte bozkatzeko.

En consecuencia, se procede a la elección de Alcalde mediante la votación secreta que se efectuará por los Concejales utilizando las papeletas proporcionadas al efecto.

Adineko mahaiak dei egin die Zinegotzi jaun-andreei, eta horiek propio prestatutako hautestontzi batean utzi dituzte bozkak.

Los Sres. Concejales van siendo llamados por la Mesa de Edad depositando su voto en la urna preparada al efecto.

Bozketa egin ostean, Adineko Mahaiak boto kontaketa egin du, eta horretarako, boto-txartel bakoitzean Alkate izateko proposatutako zinegotziaren izen-abizenak irakurri ditu. Bozketaren emaitza ondokoa izan da:

Terminada la votación, por la Mesa de Edad se procede seguidamente al escrutinio, leyendo el nombre y apellidos del Concejale propuesto para Alcalde en cada papeleta, que arroja el siguiente resultado:

Emandako botoak: 17

Votos emitidos 17

Hautagaiei emandako botoak: 16

Votos a candidaturas: 16

Boto zuriak: 1

Votos en blanco: 1

Baliogabeko botoak:0

Votos nulos:0

Beraz, baliozko botoak era honetan banatu dira:

Distribuyendo las papeletas válidas de la siguiente forma:

1.- Ane Beitia Arriola andrea.....8

1.- D^a. Ane Beitia Arriola8

2.- Jon Peli Uriguen Ansola jauna.....7

2.- D. Jon Peli Uriguen Ansola.....7

3.- Fernando Suarez Varela jauna.....0

3.- D. Fernádo Suárez Varela0

4.- Evaristo Rodriguez Rabano jauna..... 1

4.- Evaristo Rodríguez Rábano..... 1



OSOKO BILKURA
2019/06/15
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Bozketa horren emaitza kontuan izanik, Zinegotzien artean egindako bozketan, botuen gehiengo absolutua hautagai batek ere lortu ez duenez, ANE BEITIA ARRIOLA, Eusko Alderdi Jeltzalearen zemendaburu dena, aldarrikatu da UDAL HONETAKO ALKATE; berak lortu baititu udalerriko heritarren boto gehienak.

Horiek horrela, Tokiko Araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenei buruzko Testu Bateratua onartzen duen 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 18. Artikuluak xedatzen duenaren arabera, Alkateak, karguari dagozkion funtzioak betetzen hasi aurretik, zin egin eta kargua onartu beharko du, 707/1979 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraiki

Hori dela-eta, Gurrutxaga andreak ondorengo galdera egin dio Ane Beitia Arriola andreaki, Elgoibarko Udaleko Alkate karguaren jabe egin dadin:

ANE BEITIA ARRIOLA andrea

ZURE KONTZIENTZIAGATIK ETA OHOREAGATIK ZIN EGITEN DUZU EDO HITZEMATEN DUZU ELGOIBARKO UDALAREN ALKATE KARGUAK DITUEN BETEBEHARRAK ERREGAAREKIKO LEIALTASUNEZ BETEKO DITUZULA, ETA KONSTITUZIOA, ESTATUAREN OINARRIZKO ARAUA DENA, BETE ETA BETEARAZIKO DUZULA?

Ondoren hautatutako Zinegotziak, ANE BEITIA ARRIOLA ANDREAK, baietz erantzun eta adierazitakoaren arabera hitza eman du; eta bidenabar, aditzera eman du Elgoibarko Udaleko Alkate kargua hartzen

A la vista del resultado de esta votación y habida cuenta que ninguno de los candidatos ha obtenido la mayoría absoluta de los votos de los Concejales, es proclamada ALCALDESA DE ESTE AYUNTAMIENTO, DOÑA ANE BEITIA ARRIOLA, Concejala que encabeza la lista del Partido Nacionalista Vasco, que es el que ha obtenido el mayor número de votos populares en el municipio.

A tal fin, de conformidad con lo que el artículo 18 del real Decreto Legislativo 781/1986, por el que se aprueba el Texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen local dispone, antes de comenzar el ejercicio de sus funciones, la Alcaldesa deberá jurar y aceptar el cargo ante el Ayuntamiento Pleno, según lo establecido en el Real Decreto 707/1979.

A tal efecto, por parte de la Sra. Gurrutxaga, se procede a formular a D^a. Ane Beitia Arriola, la siguiente pregunta para tomar posesión del cargo de Alcaldesa de Elgoibar:

DOÑA ANE BEITIA ARRIOLA:

¿JURÁIS O PROMETÉIS POR VUESTRA CONCIENCIA Y HONOR CUMPLIR FIELMENTE LAS OBLIGACIONES DEL CARGO DE ALCALDESA DEL AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR CON LEALTAD AL REY, Y GUARDAR Y HACER GUARDAR LA CONSTITUCIÓN COMO NORMA FUNDAMENTAL DEL ESTADO?

A continuación, la Concejala electa DOÑA. ANE BEITIA ARRIOLA responde afirmativamente, prestando la promesa señalada y manifestando aceptar el cargo de Alcaldesa del Ayuntamiento de Elgoibar,



OSOKO BILKURA
2019/06/15
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

duela, eta karguaren betebeharrak beteko dituela, 707/1979 Dekretuan adierazitakoari jarraiki. Horiek horrela, Udalbatzarraren Osoko Bilkuraren aurrean, Alkate kargua hartu du. Hala, Osoko Bilkurak kargu hau ematen dio, baita indarrean dauden xedapenek ematen dizkioten eskumenak, eskubideak eta betebeharrak ere.

Kargua onartu ondoren, Ane Beitia Arriola andrea Udal honetako Alkate aldarrikatu da

Adin-mahaiaren buruak Elgoibarko Alkate berriari aginte-makila ematen dio.

Ondoren, Alkate izendatu berriak, hau da, Beitia andreak, Osoko Bilkuraren Lehendakaritza hartuta, ondokoa adierazi du:

Zinegotziok, lagunok, senitartekook, elgoibartarrok, egun on eta ongi etorriak izan zaitezte Osoko Bilkuren areto honetara.

Orain dela lau urte egin nuen bezala, gaurko hitz gehienak, esker-hitzak izango dira. Lehenik eta behin, Elgoibarko Udala osatzen duten langile guztiei, urte guzti hauetan egindako lanagatik eta erakutsitako profesionaltasungatik. Gertu gertutik ezagutu ditut eta benetan esker mila. Zuen jarrera baikorrek, zinegotzi guztion lana asko errazten du eta hori, benetan eskertzekoa da. Hemen badaukagu eredu bat, nire ezkerrean jarrita. Iñaki, mila esker denagatik.

Era berean, eskerrik beroenak baita zinegotzi guztioi ere, lau urte hauetan egindako lan gogorragatik eta agur bero bat bereziki, legealdi berri honetan jarraitzen ez duzuenoi. Lehenik EH Bildukoei, Jose Luis,

cumpliendo con las obligaciones del cargo y de conformidad con lo dispuesto en el Real Decreto 707/1979 y toma posesión del cargo de Alcaldesa ante el Ayuntamiento Pleno de la Corporación que le confiere esta posesión con todas las prerrogativas, derechos y obligaciones que le atribuyen las disposiciones vigentes.

Habiendo aceptado el cargo, es proclamada Alcaldesa de este Ayuntamiento Doña Ane Beitia Arriola

El Sr Presidente de la Mesa de Edad, hace entrega del símbolo del mando a la nueva Alcaldesa de Elgoibar.

Acto seguido, la recién nombrada Alcaldesa, Sra Beitia, ocupa la Presidencia del Pleno y toma la palabra:

Concejales y concejalas, amigos y amigas, familia, elgoibarreses y elgoibarresas, buenos días, os doy mi bienvenida a este Salón de Plenos.

Tal y como hice hace cuatro años, la mayor parte de las palabras de hoy serán palabras de agradecimiento. En primer lugar, para todo el personal que forma el Ayuntamiento de Elgoibar, por el trabajo realizado en todos estos años y por la profesionalidad que han mostrado. Los he conocido de cerca, y de verdad, os doy mil gracias. Vuestra actitud positiva facilita el trabajo de todas y todos los concejales, y eso, verdaderamente, es de agradecer. Aquí tenemos un ejemplo, sentado a mi izquierda. Gracias, Iñaki, por todo.

Al mismo tiempo, mi más sentido agradecimiento para todas y todos los concejales, por el duro trabajo que habéis hecho, y un sincero saludo, en primer lugar, a quienes no continuáis en esta nueva



OSOKO BILKURA
2019/06/15
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Miren Arrate, Mireia eta Iñaki. PSE-EEkoei... Nerea. Nire eskerrik zintzoena eta beroena. Eta zelan ez, EAJko ordezkari eta lagunei, Bittori Zabalar, Unai Arizmendiaretari eta Ioseba Arrizabalagari. Ordu asko eman ditugu elkarlanean, eztabaidatu ere asko egin dugu baina beti ere, alderdi kideoi lotzen gaituen helburu nagusi baten alde, elgoibartar guztien ongizate eta bizi-kalitatea hobetzearen alde. Hori beti argi izan dugu. Eskerrik asko bihotzez zuen esfortzu, dedikazio eta konpromisoagatik.

Badoazenei eskerrak eta datozenei zein gelditzen direnei ongi etorria eman behar dizuet baita. Bereziki, azken 4 urte hauetan gobernuan aritu diren zinegotzien lan ikaragarria eskertu eta azpimarratu nahiko nuke. Baita une zailenetan ere, nirekiko erakutsitako kariñoagatik, pazientziagatik eta une oro, babestuta sentiarazteagatik. Funtsezkoa izan da niretzat. Espero egoerak exijitzen zuen maila erakutsi izana eta behar den bezalako lankide eta lagun izana zuekiko. Mila esker, egon zaretenei, jarraitzen duzenori.

Esan bezala, ongi etorri zinegotzi berrioi: Atsegin, Iñigo,... Evaristo, Itxaso, Eneritz, Jorge, Aitziber eta Jon Joseba. Batzuk oposiziotik eta beste batzuk, gobernutik egingo duzue lan. Baina nire ustetan, alderdi politiko desberdinetako ordezkariak izan arren, helburu orokor batengatik lan egin behar dugun pertsonak gara: Elgoibar eta elgoibartarren bizi-kalitatea hobetzen jarraitzeko. Eta horretarako, ezinbestekoa izango zaigu akordioetara iristea. Elkarlanerako zabalik egon gara aurreko legealdian eta zabalik egongo gara aurrerantzean ere.

legislatura. En primer lugar a las y los de EH Bildu: Jose Luis, Miren Arrate e Iñaki; a los del PSE-EE... Nerea. Mi más sincero agradecimiento. Y cómo no, a los y las representantes y amigas del PNV: Bittori Zabala, Unai Arizmendiarieta y Ioseba Arrizabalaga. Hemos pasado muchas horas trabajando juntos, también hemos discutido mucho, pero siempre a favor de un objetivo primordial que nos une a los partidos que somos compañeros: trabajar para mejorar el bienestar y la calidad de vida de las y los elgoibarreses. Gracias de corazón por vuestro esfuerzo, dedicación y compromiso.

Asimismo, debo daros las gracias a quienes se van, y dar la bienvenida a quienes se quedan. Sobre todo, quisiera remarcar la increíble labor de las y los concejales que han estado en el gobierno durante estos últimos 4 años. Incluso el cariño y la paciencia que han mostrado hacia mi persona en los momentos más difíciles, y el haberme hecho sentir protegida en todo momento. Ha sido fundamental para mí. Espero haber mostrado el nivel exigido por cada situación y el haberos servido de ayuda. Muchas gracias a quienes habéis estado, a quienes continuáis.

Como he dicho, mi bienvenida para las y los nuevos concejales: Atsegin, Iñigo... Evaristo, Itxaso, Eneritz, Jorge, Aitziber y Jon Joseba. Algunos trabajaréis desde la oposición, y otros, desde el gobierno. Pero en mi opinión, a pesar de ser representantes de diferentes partidos políticos, debemos trabajar por un objetivo común: trabajar para mejorar Elgoibar y la calidad de vida de su ciudadanía. Y para ello, será indispensable llegar a acuerdos. En la anterior legislatura estuvimos en disposición de llegar a acuerdos, y en adelante, también estaremos abiertos a ello.



OSOKO BILKURA
2019/06/15
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Eskerrak baita EAJko zerrenda osatu duten lagun guztiei, herritarren alde lan egiteko emandako aurrerapausoagatik. Badakizue, denok, baita gurekin zerrendan etorri zaretenok, nahiz eta zinegotzi izatera ez iritsi, edozertarako hemen naukazuela. Harro nago nire taldeaz eta hurrengo lau urteotan daukazuen guztia ematera animatzen zaituztet, gure herritarrek merezi dute eta, Elgoibarrek merezi du.

Elgoibarko EAJko alderdikide guztiei eskerrak emateko unea ere bada, talde honengan duten konfidantzagatik. Gure aurretik egon diren alkate eta zinegotziek erakutsitako maila handiari eusten ahaleginduko gara.

Pleno areto honetara hurbildu zareten nire lagunoi ere besarkada handi bana, beti hor egon zaretelako, irribarretsu, umore onez eta animoak ematen behar izan ditudan momentuetan, ere bai, onetan eta txarretan.

Eta nola ez, familiari, senarrari eta seme-alabei bereziki. Daukadan familiarik gabe, Ane Beitia alkatea ez zen existituko. Familia, egun onetan hor dago. Familia, egun txarretan hor dago. Hor zaudete beti eta zuei esker, hain exigentea den kargu honi aurrera egiteko motibazioa eta indarrak aurkitzen ditut beti. Eskerrik asko beraz, Fidel, Ainhoa eta Andoni, Koldo, Ainhoa, Patxi, Miren, Olatz, Aran, Ione. Eta zela ez, aita eta ama, izan direlako nire eredu. Ni naiz naizen modukoa nire aitak eta nire amak horrela egin nautelako. Eskerrik asko zareten modukoak izateagatik. Eta hor zaudeten lagun guztiak, hor ikusten ditudanak, batzuek emozionatzen direnak eta beste batzuk ez, hor egoteagatik, mila esker, berriz ere.

Mi agradecimiento también para aquellos amigos y amigas que han formado la lista del PNV, por el paso adelante que han dado. Ya sabéis todos, también quienes habéis venido con nosotras y nosotros en la lista, que aunque no hayáis logrado la concejalía, me tenéis aquí para cualquier cosa. Estoy orgullosa de mi grupo, y os animo a que deis todo lo que tengáis en los próximos cuatro años, puesto que nuestra ciudadanía lo merece, Elgoibar lo merece.

Ha llegado el momento de mostrar mi agradecimiento a todas y todos los afiliados del PNV, por la confianza mostrada en este grupo. Nos esforzaremos en mantener el elevado nivel que han mostrado las alcaldesas, los alcaldes, y las y los concejales que han estado antes que nosotros.

Un gran abrazo también para todos los amigos y amigas que habéis venido a este salón de plenos, porque siempre habéis estado ahí, sonrientes, con buen humor, dándome ánimos en todos los momentos que los he necesitados, tanto en los buenos momentos, como en los malos.

Y cómo no, a la familia, a mi marido y a mis hijos e hijas. Sin la familia que tengo, la alcaldesa Ane Beitia no existiría. La familia esta ahí en los días buenos. La familia está ahí en los momentos malos. Estáis ahí siempre, y gracias a vosotros y a vosotras, siempre encuentro la motivación y la fuerza para continuar con este cargo que es tan exigente. Gracias, pues, Fidel, Ainhoa y Andoni, Koldo, Ainhoa, Patxi, Miren, Olatz, Aran, Ione. Y cómo no, aita y ama, porque habéis sido un ejemplo para mí. Porque mi madre y mi padre me han hecho como soy. Gracias por ser como sois. Y a todas mis amigas y amigos, a quienes veo ahí, a quienes se emocionan y a quienes no, muchas gracias, de nuevo, por estar ahí.



OSOKO BILKURA
2019/06/15
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Eta azkenengo esker mezua, maiatzeko udal hauteskundeetan EAJrengan sinistu zuten 2.629 pertsonentzako da. Zuen babesari esker, 8 zinegotzi lortu ditugu, ez da gutxi. Zuen amasa, zuen kemena, zuen konfidantza eta beste hainbat elgoibartarren kariñoa sentitu dugu azken asteetan. Eta deskantsurik gabe, lanean jarraituko dugu emandako hitza betetzeko, zuori hutsik ez egiteko. Nire hitza, Eusko Alderdi Jeltzalearen hitza ematen dizuet. Elgoibar eta elgoibartarekiko dugun konpromisoa erabatekoa da. Eta nire hitza hor doakizue berriz ere.

Lana, umiltasuna, dedikazioa eta hurbiltasuna promesten dugu, gobernu irekia, gardena, zintzoa eta arduratsua. Betiko moduan, erantzukizunez kudeatuko dugu etxe honetako dirua eta erantzukizunez defendatuko ditugu herritar guztien interesak. Politika egiteko gaude hemen bai, baina batez ere, herri bat eraikitze gaude hemen, eta horretan jardungo dugu humengo lau urteetan.

Tokiko komertzioaren alde lan egingo dugu, familien alde, gazteen alde, adineko pertsonen ongizatearen alde, gaizki pasatzen ari den elgoibartarren alde, enpleguaren alde, formazioaren alde, auzoen alde, irisgarritasunaren alde, segurtasunaren alde, euskararen alde, kultura, kirola eta berdintasunaren alde... Laburbilduz eta bi hitzetan esanda, ELGOIBARREN ALDE, eta batez ere, Elgoibartarren alde.

Eta diskurtsoarekin bukatzeko, nire familia eta lagunez harro nagoela esan behar dut. Harro baita nire alderdiaz, EAJ-PNV, harro elgoibartarra izateaz, harro Elgoibarrek dituen elgoiartarrez, eta OSO HARRO, BESTE LAU URTEZ GUZTION ALKATE IZATEN JARRAITZEKO ESKAINITAKO

Y mi último mensaje va dirigido a las 2.629 personas que han creído en el PNV en las elecciones de mayo. Gracias a vuestro apoyo, hemos logrado 8 concejales, no es poco. Hemos sentido vuestro aliento, vuestra fuerza, vuestra confianza, y también hemos sentido el cariño de otros muchos elgoibarreses y elgoibarresas en las últimas semanas. Y continuaremos trabajando sin descanso para cumplir con la palabra dada. Os doy mi palabra, la palabra del Partido Nacionalista Vasco. El compromiso para con Elgoibar y su ciudadanía es total. Y ahí tenéis mi palabra una vez más.

Prometemos nuestro trabajo, nuestra humildad, dedicación y cercanía, un gobierno abierto, transparente, sincero y responsable. Como siempre, gestionaremos de modo responsable el dinero de esta casa, y defenderemos con responsabilidad los intereses de toda la ciudadanía. Estamos aquí para hacer política, pero sobre todo, estamos aquí para construir un pueblo, y trabajaremos para ello en los próximos cuatro años.

Trabajaremos a favor del comercio local, a favor de las familias, a favor de la juventud, a favor del bienestar de las personas mayores, a favor de las y los elgoibarreses que lo están pasando mal, a favor del empleo, a favor de la formación, a favor de los barrios, a favor de la accesibilidad, a favor de la seguridad, a favor del euskera, a favor, de la cultura, el deporte y la igualdad... En resumen, diciéndolo en dos palabras, A FAVOR DE ELGOIBAR, y sobre todo, a favor de las elgoibarresas y elgoibarreses.

Y para finalizar mi discurso, debo decir que me siento orgullosa de mi familia y mis amistades. Estoy también orgullosa de mi partido, EAJ-PNV, orgullosa de ser elgoibarresa, de la ciudadanía de Elgoibar, y MUY ORGULLOSA POR LA OPORTUNIDAD QUE ME HABÉIS



OSOKO BILKURA
2019/06/15
7 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

AUKERAGATIK. OHORE HANDIA
ZALANTZARIK GABE.

OFRECIDO PARA CONTINUAR
SIENDO LA ALCALDESA DE TODAS Y
TODOS. UN GRAN HONOR, SIN
DUDA.

Mila esker denoi. Eskerik asko bene-
benetan.

Mil gracias a todas y a todos. Muchas gracias
de corazón

Azkenik, ANE BEITIA ARRIOLA
ANDREAK herriaren urrezko intsignia
banatu die, lehenbizi, Udal honetako
Zinegotzi kargua hartu berri duten
pertsoniei.

Finalmente, DOÑA ANE BEITIA
ARRIOLA, procede a la entrega de la
insignia de oro de la localidad a las personas
que acaban de tomar posesión del cargo de
Concejal de este Ayuntamiento por vez
primera.

-Atsegine Uzuriaga Mendizabal andrea.
-Iñigo Loyola Garate jauna
-Itxaso Egaña Iriondo andrea
-Eneritz Azkue Basurko andrea
-Aitziber Aramberri Uranga andrea
-Jon Joseba Etxabe Jauregi
-Evaristo Rodriguez Rabano jauna

-Doña Atsegine Uzuriaga Mendizabal.
-Don Iñigo Loyola Garate.
-Doña Itxaso Egaña Iriondo.
-Doña Eneritz Azkue Basurko.
-Doña Aitziber Aramberri Uranga.
-Don Jon Joseba Etxabe Jauregi
-Don Evaristo Rodríguez Rábano.

Eta eguerdiko hamabiak eta berrogeita bost
minutu direnean, Alkate-Lehendakari
andreak bilkura bukatutzat eman du, eta nik,
Idazkari naizenez, horren ziurtagiria egin
dut.

Y siendo las doce horas y cuarenta y cinco
minutos la Sra. Alcaldesa-Presidenta levanta
la sesión, extendiéndose la presente acta
que yo el Secretario, certifico.

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau
egiten dut Alkate andreak oniritziarekin,
Elgoibarren bi mila eta hemeretziko
ekainaren hamazazpian.-----

Y para que así conste, expido la presente
certificación con el Vº.Bº. de la Sra.
Alcaldesa, en Elgoibar a diecisiete de junio
de dos mil diecinueve.----

O.E.-Vº.Bº.
ALKATEA, - LA ALCALDESA